

ADMINISTRAZIO-BALDINTZA ZEHATZEN ORRIEN DATUAK

LEHENENGO ATALA - KONTRATUAREN EDUKIA

OBJEKTUA	Etxean erabilitako landare olioa biltzeko eta kaleko edukiontzien garbiketa eta mantentze-lanak egiteko zerbitzua
IZAERA	Zerbitzu-kontratua, 3/2011 LEDren IV. liburuko II. tituluko V. kapituluak arautzen duena.
BURUTZEKO EPEA	2 urte; urteka berariaz luza daiteke, gehienez ere 4 urte arte.
LIZITAZIO-PREZIOA	18.000,00 euro urtean, BEZa sartu gabe. Prezioa luzapenak kontuan hartuta 72.000,00 euro, BEZa sartu gabe.
AURREKONTU-SAILA	Udal Elkarteke aurrekontuan indarrean dagoen kontu-saila.
ORDAINTZEKO MODUA	Hilero
PREZIOEN BERRIKUSPENA	Estatuko KPI orokorrak aurreko urte naturalean izandako gorabeheraren %85
BERMEAK	Behin-behinekoa: ez da eskatzen. Behin betikoa: esleipenaren prezioaren %5.
BESTE BETEBEHAR BATZUK	Erantzukizun zibileko poliza edukitzea, gutxienez 600.000,00 euroko estaldurarekin. Subrogazioa, lan hitzarmenak aurreikusitakoaren arabera

II. ATALA - KONTRATATZEKO PROZEDURA

PROZEDURA. MODUA.	Prozedura irekia.
ESLEITZEKO IRIZPIDEAK	1) Diru-eskaintza 0-55 2) Eskaintzaren kalitate teknikoa: 0-35 3) Proposatutako hobekuntzak 0-10
FINANTZA ETA EKONOMIA KAUDIMENA	Finantza erakundeen txostena edo arrisku profesionalen kalte-ordainerako aseguruaren jabe dela adierazten duen egiaztatzea.
KAUDIMEN TEKNIKOAK	<ul style="list-style-type: none"> ✓ Azken 3 urteetan burututako antzeko egitasmoen zerrenda. ✓ Kudeatzaile baimenduna: hondakin ez arriskutsuak garraiatzeko baimena; hondakin ez arriskutsuak biltzeko baimena; hondakin ez arriskutsuak kudeatzeko baimena.
ESKAINTZAK AURKEZTEKO EPEA	Irailaren 3a arte, egun hori barne.
ESKAINTZAK AURKEZTEKO TOKIA	Urdaneta bidea, 6 20800, Zarautz Astelehenetik ostiralera, 9:00etatik 14:00etara.

ETXEAN ERABILITAKO LANDARE OLIOA BILTZEKO ETA KALEKO EDUKIONTZIEN GARBIKETA ETA MANTENTZE-LANAK EGITEKO ZERBITZUA KONTRATATZEKO ADMINISTRAZIO-BALDINTZA ZEHATZEN ORRIAK

LEHENENGO ATALA - KONTRATUAREN EDUKIA

1.- KONTRATUAREN OBJEKTUA ETA IZAERA

Kontratu honen objektua da etxean erabilitako landare olio biltzeko eta kaleko edukiontzien garbiketa eta mantentze-lanak egiteko zerbitzua eskaintzea. Zerbitzu hori bideratuko da kontratu izaera duten baldintzen orri hauetan eta eskakizun teknikoen orrietan ezarritakoaren arabera.

Kontratazio hau zerbitzu-kontratu gisa gauzatuko da, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bategina onartzen duen 3/2011 LEDren 301. artikuluetan eta hurrengoetan ezartzen denaren argitara.

2.- KONTRATUA BETETZEKO EPEA

Kontratua burutzeko epea **2 urtekoa** da, kontratua gauzatzen denetik hasita. Kontratua luzatzeko aukera aurreikusten da, urtez urte. Nolanahi ere den, kontratuaren iraupena gehienez ere 4 urtekoa izango da.

3.- KONTRATUAREN PREZIOA

Lizitazioaren aurrekontua, gehienez ere, 18.000,00 eurokoa izango da urteko (BEZa sartu gabe). Lizitatuzaileek zenbateko hori hobetzeko aukera izango dute eskaintzetan. Kontratuaren aurrekontu osoa, luzapenak barne direla (baleude) 72.000,00 eurokoa da (BEZa sartu gabe).

3/2011 LEDren 302. artikulua aurreikusitakoaren ondorioetarako, kontratu honen prezioa finkatuko da oroharreko prezioaren sistemaren bidez.

Prezioan sartuta daude kontratuaren ondorioz sortzen diren gastu guztiak, hala nola: lantaldearen eta laguntzaileen lansari guztiak, gastu materialak, ikus-onesteko gastuak, elkargoen gastuak, gastu orokorrak eta edozein arlo fiskaleko zerga, tasa eta arbitrioak (Balio Erantsiaren gaineko Zerga salbu).

4.- FINANTZAKETA

Kontratuak dakartzkion betebeharrei aurre egiteko Udal Elkarteak badu nahikoa aurrekontu-kreditu, indarrean dagoen aurrekontuaren doakion kontu-atalean.

Halaber, Udal Elkarteko aurrekontuak erabakitzeko eskumena duen organoak konpromisoa hartzen du kontratuak lotu ditzakeen ekitaldietan behar diren kredituak gordetzeko.

5.- ORDAINTZEKO MODUA

Kontratuaren jabeari honela ordainduko zaio:

Zerbitzua jaso eta ontzat jo ondoren, sinatutako kontratuaren argitara egindako lanen ordainketa egingo da, berdinak diren hamabi ordainketetan (hilean bat), esleipendunak faktura aurkeztu eta Udal Elkarteak onartu eta gero.

Faktura ontzat jo ondoren ordainduko da, kontratu-jabeak adierazitako finantza-erakundera egingo den transferentziaren bidez, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginaren 216. artikulua aurreikusitako epeetan.

Hileko faktura horri Udal Elkarteak kenketak egin ahal izango dizkio, esleitutako zerbitzuak ez betetzearen, osorik ez betetzearen edo jar litezkeen zehapenen ondorioz.

6.- PREZIOAK BERRIKUSTEA

Kontratu honen prezioak berrikusi ahal izango dira formalizatu zenetik urtebete igarotakoan, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginaren 89-94. artikuluetan ezarritakoekin bat etorriz.

Kontratuaren bigarren urtetik aurrera prezioak berrikusteko honako eragiketa egingo da: aurreko urte naturalari dagokion estatuko KPI orokorrak jasandako bariazioaren %85.

Berrikusiko dira soilik exekuzio materialeko kostuaren prezioak (pertsonaleko kostuak eta materialen kostuak). Gastu orokorrak eta industria-mozkina ez dira berrikusiko. Portzentaje hori aplikatuko zaie exekuzio materialeko berrikusitako prezioei.

7.- BERMEAK

Ikuspegi ekonomikotik eskaintza onuragarriena egiten duen lehiatzaileak behin betiko bermea jarri beharko du Urola Kostako Udal Elkartearen alde, onartutako betebeharrak beteko dituela bermatzeko, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginaren 95.1. artikuluekin bat etorriz. Behin betiko bermearen zenbatekoa izango da esleitzeko prezioaren %5 (BEZa sartu gabe).

Behin betiko bermea jartzeko epea **10 egun balioudunekoa** izango da, berme hori jartzeko errekerimendua jaso eta hurrengo egunetik kontatzen hasita. Bermea jarri ahal izango da Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginaren 96. artikulua ezarritako bideak erabiliz eta Administrazio Publikoen Kontratuen Legearen Erregelamenduaren 55. artikuluan eta hurrengoetan ezarritako baldintzen argitara. Betebehar hori esleipendunari egotz dakizkiokeen arrazoiak direla medio betetzen ez bada, Administrazioak kontratua amaitutzat joko du.

Bermea dirutan jartzen bada, bermearen zenbatekoa honako kontu zenbakian sartu eta ordainagiria Udal Elkarteko Diruzaintzan aurkeztuko da: Kutxa 2095.5076.41.1061556162.

Bermea itzuliko da Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginaren 102. artikuluan xedatutakoari jarraiki, berme-epea amaitu eta esleipendunak legezko betebehar guztiak bete ondoren.

8.- KONTRATUAREN JABEAREN BETEBEHARRAK

Kontratua burutzeko arriskua kontratu-jabeari dagokio.

Kontratua burutzeko honakoak hartuko dira aintzat: administrazio baldintzen orri hauek, eskakizun teknikoen orriak, aplikatu behar den araubide orokorra eta, nolana ere den, kontratatutako lanek eskakizun dituzten arau teknikoak. Kontratua burutuko da Udal Elkartearen ikuskapen eta zuzendaritzapean; Udal Elkarteak ikuskapen eta zuzendaritza lanak ahoz nahiz idatziz bideratu ahal izango ditu.

Kontratuaren jabearena da egindako lanen kalitate teknikoaren eta zerbitzuen erantzukizuna. Lanak egiten diren bitartean izan litezkeen hutsegite, akats, metodo desegoki edo ondorio okerrek Administrazioari edo hirugarrenei sor diezazkiekeen ondorioen erantzukizuna ere kontratuaren jabearena izango da. Zerbitzua behar bezala burutzen dela zainduko du, eta hori lortzeko behar diren neurriak hartuko ditu. Lanak egiten direnean ahalik eta kalterik txikiena sortuko zaie herritarrei (bideak ahalik eta gutxien okupatu, ibilgailuen trafikoari ahalik eta oztopo gutxien egin eta abar).

Kontratistak beharrezko ekipamendu eta bitartekariak jarri behar ditu kontratuari dagozkion lanak ondo gauzatu eta kontratua aipatutako epean bukatzeko. Horrez gain, beharrezko langileak kontratatu behar ditu, hitzartutako betebeharrak betetzeko.

Eskaintzan agertzen diren teknikarien taldean aldaketak egitea Administrazioak onartu egin behar du, eta esleipendunak izendatu nahi dituen pertsonen curriculum vitaeak aurkeztu beharko ditu, Administrazioak horrela eskatzen badio. Halaber, kontratua indarrean dela sortzen diren gorabehera guztien berri Udal Elkarteari emango dio berehala.

Udal Elkarteari argibideak eta informazioa emango dizkio uneoro balizko edo benetako greba egoeratan, zerbitzuari egoera horrek zer-nola eragingo dion argitzeko. Udal Elkarteak dena delako epean esleipendunak fakturatu behar duen zenbatekoari kenkariak aplikatu ahal izango dizkio, ez betetzearen eta zerbitzuaren ohiko funtzionamenduari eragindako ondorioen arabera. Greba dela eta, esleipenduna izango da beharrezko gutxieneko zerbitzuak bermatzeko arduraduna, indarrean dagoen araubidearen argitara.

Kontratuaren jabeak zerbitzu-arduradun bat izendatuko du eta arduradun hori izango da Udal Elkarteak zerbitzu horren jarraipena egiteko izendatzen dituen Udal Elkarteko langileekin harremana izango duena. Udal Elkarteak ezarriko du Udal Elkarteko zerbitzu teknikoaren eta kontratu-jabearen arteko informazio-emate eta bileren maiztasuna. Udal Elkarteak arduradun hori aldatzeko exijitu ahal izango du, zerbitzuaren onerako beharrezkoa dela irizten baldin badu. Era berean, Udal Elkarteak informazioa bildu eta kontratu-jabea egiten ari diren lana gainbegiratu ahal izango du.

Esleipendunak kontratua behar bezala burutzeko beharrezko diren zerbitzu guztiak egingo ditu, bestelako ordainik gabe, lan-bilera eta informazio-bileratara joatea barne.

Gainera, kontratuaren jabeak kontratatutako zerbitzuen inguruan ezagutu ditzakeen datu guztiak isilpean gorde behar ditu, datu horiek konfidentzialak direlako. Esleipendunak kalte-ordaina emango die Udal Elkarteari eta kalterik jasaten duten pertsonen isiltasun profesionala haustearen ondorioz gertatutako kalte eta galerengatik.

Kontratua betetzeko enpresa esleipendunak izaera pertsonaleko datuak erabili behar baldin baditu, izaera pertsonaleko datuak babesteko indarrean dagoen araubidea beteko du. Kontratuaren objektua burutu ondoren, tratatutako datu pertsonalak Udal Elkarteari itzuliko zaizkio. Esleipendunak suntsitu egin behar ditu eskuratutako datuak. Esleipendunak datu horiek gorde ahal izango ditu, Udal Elkarteak idatziz horretarako baimena ematen badio, etorkizunean beste lan edo zerbitzu batzuetan erabiltzeko. Dena dela, gehienez bost (5) urtez gorde ahal izango ditu, beharrezko diren segurtasun neurriak hartuta.

Kontratu-jabeari dagokio zerbitzuaren objektu diren lanak burutzeko beharrezko diren baimen eta lizentziak eskuratzeko eta ordaintzea eta baimen horien eskumena duten organismoek jarritako baldintza eta eskakizunak betetzea.

9.- KONTRATUAREN JABEAREN LAN-BETEBEHARRAK

Kontratu honen objektu diren lanak egiten dituzten langileei dagokienez, esleipendunak lanaren, Gizarte Segurantzaren, laneko segurtasun eta higiearen eta lan arriskuak prebenitzearen arloan indarrean dauden legezko xedapenak bete behar ditu. Urola Kostako Udal Elkarteak ez du inolako erantzukizunik izango xedapen horiek betetzen ez badira.

Esleipendunak azaroaren 8ko 31/1995 Legea (laneko arriskuen prebentziokoa), urtarrilaren 30eko 171/2007 Errege Dekretua (aipatutako lege horren 24. artikulua, enpresa-jardueren koordinazioaren atala, garatzen duena) eta lan arriskuen prebentzioaren arloan indarrean dauden bestelako xedapenak bete behar ditu, baldintzen orri hauen **III. ERANSKINEAN** ezarritakoarekin bat etorriz.

10. KONTRATU-JABEAREN BETEBEHARRAK HIZKUNTZA OFIZIALEN ERABILPENARI DAGOKIONEZ

Kontratu honek nahitaez bete behar du hizkuntza ofizialtasun bikoitzaren araubidea, Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuaren 6c. artikuluan ezarria eta Euskararen erabilera normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legean eta hori garatzen duten arauetan erregulatu.

Arau orokor gisa, kontratuaren xede diren azterlan, txosten, proiektu eta bestelako lanak hizkuntza ofizial bietan egingo dira (euskaraz eta gaztelaniaz).

Kontratuaren objektu diren zerbitzuek beste batzuekin harremanak izatea baldin badakarte (enpresekin edo, oro har, herritarrekin), kontratua burutzen ari den enpresaren eta erabiltzaile edo herritarren arteko komunikazioetan (ahozkoetan nahiz idatzietan) erabiliko da erabiltzaile edo herritarrek hautatzen duten hizkuntza, kasuan kasu. Berariaz hizkuntza hauturik ez baldin badago, kontratuaren esleipendunak pertsona fisiko nahiz juridikoei kontratuaren objektua betetzen ari dela egiten eta bidaltzen dizkien komunikazio eta jakinarazpenak (fakturak eta bestelako trafikoko dokumentuak barne) bi hizkuntza ofizialetan bidaliko ditu. Nolanahi ere den, herritarrak edozein unetan erabili ahal izango du hizkuntza hautatzeko eta bi hizkuntzetako bat erabiltzeko eskubidea.

Esleipendunaren eta Udal Elkartearen ahozko komunikazioak euskaraz izango dira (telefono komunikazioak, lan-bilerak, aurkezpenak...). Esleipendunak izendatutako ordezkari edo teknikariek baldintza hori bete ezin badute, Udal Elkarteak langile edo teknikari horiek aldatzeko eskatu ahal izango du.

Esleipendunaren eta Udal Elkartearen arteko komunikazio idatziak euskaraz eta gaztelaniaz izango dira, bai komunikazio formalak (txostenak, memoriak...), bai komunikazio informalak (lanerako zirriborroak, mezu elektronikoak...). Udal Elkarteak komunikazio formalak euskaraz soilik izateko eskubidea gordetzen du.

Baldintza honetan eta eskakizun teknikoaren orrietan ezarritako hizkuntza baldintzek kontratua burutzeko funtsezko obligazio izaera daukate, 3/2011 LEDren ondorioetarako, eta hortaz, baldintza horiek ez betetzeak kontratua suntsiaraztea (223.f) artikulua argitaratu edo 212. artikuluan aurreikusitako zehapenak ezartzea ekar dezake, kontratuaren jabeak kontratuaren funtsezko betebeharrak ez betetzeagatik. Zehapenak ezarriko dira kasuan kasu, ez betetzearen larritasuna kontuan hartuta.

11.- LAGATZEA ETA AZPIKONTRATATZEA

Esleipendunak ezin dizkio beste pertsona edo erakunde bati laga edo eskualdatu kontratutik eratortzen diren eskubide eta betebeharrak, aurrez eta berariaz Udal Elkartearen baimena izan ezean.

Zerbitzuaren zati bat azpikontratatzekotan, eskaintzan bertan honako hauek adierazi behar dira: azpikontratatu den zerbitzu-zatia, bere zenbatekoa, zati hori burutuko duen enpresaren edo enpresen izen edo ezaugarriak, kaudimen profesionalaren ikuspegitik ezarritako baldintzak kontuan hartuta.

Azpikontratuak egiteko bete egin beharko dira Kontratuen Legearen 227. artikulua ezarritako gainerako eskakizunak.

12.- KONTRATU-JABEAREN ERANTZUKIZUNA, KONTRATUA BETETZEN BESTE BATZUEI ERAGINDAKO KALTEEN AURREAN

Esleipenduna izango da kontratua burutzeko egiten dituen lanen ondorioz beste batzuei eragindako kalte eta galeren erantzule, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginaren 214. artikuluaekin bat etorritik.

Kontratuaren jabeak aseguru bat kontratatuta izan behar du kontratua betetzeko epean eta berme epean, kontratua burutzen ari dela eragin ditzakeen kalte eta galeren erantzukizunari aurre egiteko. Aseguru horrek **600.000,00 euroko** estaldura izango du gutxienez eta, besteak beste, honako hauek berariaz adieraziko ditu: aseguratuak (aseguratuaren artean Urola Kostako Udal Elkarteak berariaz agertuko da), gutxieneko estaldurak eta berramatutako kopuruak, epeak, adierazitako aseguratuak kopuruak... Datu horiek guztiak edozein unetan egiaztatu beharko ditu, Administrazioak horrela eskatuz gero. Horretarako, jatorrizko poliza, polizaren primen ordainagiriak edo aseguru-etxearen ziurtagiriak aurkeztu beharko ditu kontratuaren jabeak. Baldintza honetan ezarritako eskakizunak ez egiaztatzea kontratua amaitutzat emateko arrazoi izango da, izan ere, 3/2011 LEDren 223. artikulua argitaratu ondoren, betebeharrak hori funtsezko kontratu-betebeharra da.

13.- KONTRATUA EZ BETETZEA, ETA EZ BETETZEAGATIK ESLEIPENDUNARI JARRIKO ZAIKION ZEHAPENAK

Kontratuen Legearen 212.1 artikulua jarraiki, kontratu-jabeak ez baditu betetzen orriotan edo eskakizun teknikoaren orrietan ezarritako betebeharrak, edo zerbitzua hobetzeko Udal Elkarteak emandako aginduak, Udal Elkarteak jarraian adierazten diren eta kontratuaren aurrekontuaren %10eko balioa duten zehapenak ezarri ahal izango ditu, indarrean dagoen araubideak kontratua ez betetzeagatik aurreikusten dituen bestelako eginbideei kalterik egin gabe.

Kontratu-jabearen ez betetzeak honela sailkatuko dira: arinak, larriak eta oso larriak.

Berariaz aipatzen ez diren arau-haustek sailkatzeko, horiek aurrekoekiko duten antzekotasuna hartuko da kontuan. Udal Elkarteari dagokio, eta ez beste inori, arau-haustek sailkatzea, aurreko ataletan aipatu ez direnak barne.

Udal Elkarteak kontratuaren jabeari zehapenik ez jartzea erabaki ahal izango du, kontratuaren jabearen edo bere langileen esku ez dauden justifikatutako arrazoiengatik edo ezinbesteko kasuengatik aurreikusitako zerbitzuren bat burutzeko ezinezkoa dela jakinarazten badu. Horrela gertatuz gero, egin gabeko lanen zenbatekoa kenduko zaio dagokion ordainketari, betiere hutsunea konpontzeko beharrezko neurriak berehala hartzen baditu.

Zehapenaren kopurua (irimo bilakatu ondoren) kontratuaren jabeari ordaindu behar zaion hurrengo fakturatik kenduko zaio, edo, bestela, behin-betiko bermetik. Bigarren hori gertatuz gero, kontratuaren jabeak bermea egokitu egin beharko du.

Zehapena lan bat ez egiteak edo oker egiteak eragin badu, kontratuaren prezioaren ordainketa murriztu egingo da, kontratuak agindutako lanetik benetan eta behar bezala burutu den lanaren ehunekora arte.

Ez betetzeak onuraren bat ekarri badio kontratu-jabeari, zehapen ekonomikoa handiagotu ahal izango da, eskuratutako mozkinaren zenbatekoa adina, dagokion zigorra ezartzeko espedienteaz ezarritakoari jarraiki.

Prozedura hori izapidetuko da ofizioz (Udal Elkarteak) edo hirugarrenen salaketa baten bidez. Zigor-espedientea Udal Elkarteko lehendakariak ebatziko du, edo haren ordezkari denak.

Zehapenaren zenbatekoak urtero eguneratuko dira, erreferentzia gisa estatuko KPI orokorraren gorabeherak hartuta.

a) Ez betetze oso larriak. Zehapenak

Honako hauek hartuko dira ez betetze oso larritzat:

- Ez betetze larriak egitea behin eta berriz.
- Kontratua hirugarrenei lagatzea edo azpikontratatzea, Udal Elkartearen baimenik gabe.
- Zerbitzua eskaintzeko lanak gelditu edo etetea 48 ordu edo gehiagoz, kontratuaren jabearen erruagatik.
- Emakidari atxikitako bitarteko materialak zaindu gabe eduki edo funtzionamendu egoera txarrean egotea, zerbitzuari kaltea eraginez.
- Zerbitzuak nabarmen oker eta irregulartasunez ematea.
- Udal Elkarteak zerbitzuak eskaintzeko ematen dituen arau eta aginduak eta, oro har, lanak egiteko era zehazten duten arauak ez betetzea.
- Udal Elkartearen ikuskapen- eta zaintza-lanei uko egin, oztopatu edo egiten ez uztea.
- Bildutako materialak Udal Elkarteak baimendu gabeko lekuetara eramatea.
- Enpresaren kudeaketari dagokion dokumentazioa faltatzea.
- Kontratuaren jabeak edo bere langileek ordainsariak edo bestelako ordainak jasotzea zerbitzua burutzeagatik.
- Orokorrean, esleipendunak kontratuko funtsezko betebeharren bat ez betetzea.

Oso larritzat hartzen den ez betetzeren bat egiten bada, honako zehapen hauetako bat ezarriko da:

- 2.000,00 eta 3.500,00 euro arteko zehapen ekonomikoa (zenbatekoa zehaztuko da arau-haustearen garrantziaren arabera).
- Kontratua amaitzea.

Udal Elkarteak kontratua amaitutzat joko du ez betetzeagatik, kontratu-jabeari entzun ondoren. Kontratua horrela amaitzen bada, kontratu-jabeak, alde batetik, behin betiko bermea galduko du, eta, beste alde batetik, kontratua amaitzeak Administrazioari edo zerbitzuaren erabiltzaileei eragindako kalteak eta galerak ordaindu beharko ditu.

b) Ez betetze larriak. Zehapenak

Honako arau-hauste hauek hartuko dira ez betetze larritzat:

- Hiru ez betetze arin (edo gehiago) egitea.
- Kontratuaren jabeak zerbitzuei atxikitako langileek bizilagunekin gorabeherak izatea.
- Biltzen diren hondakinak hartu behar dituen helmuga-zentroko arduradunek emandako agindu edo jarraibideak ez betetzea.
- Udal Elkarteak eskatutako lan-txostenak eta bestelako txostenak garaiz ez aurkeztea edo behar bezala ez aurkeztea; zerbitzua kudeatu eta kontrolatzeko Udal Elkarteak emandako tresna informatikoak oker erabiltzea; atzemandako akatsak ez komunikatzea; eskatutako informazioa ez ematea edo egiazko datuak ez ematea.
- Zerbitzua eskaintzeko behar diren segurtasun dispositiboak ez jarri edo erabiltzea.
- Aurreikusitako ibilbideak behin eta berriz aldatzea.
- Ezarritako ordutegia behin eta berriz ez betetzea.

Larritzat hartzen den ez betetzeren bat egiten bada, honako zigor hauetako bat ezarriko da:

- 1.000,00 eta 2.000,00 euro arteko zehapen ekonomikoa (zenbatekoa zehaztuko da arau-haustearen garrantziaren arabera).

c) Ez betetze arinak. Zehapenak

Arau-hauste arina izango da baldintzen orrietan eta eskakizun teknikoan orrietan finkatutako betebeharrak ez betetzea, arau-hauste larri edo oso larritzat sailkatuta ez daudenak.

Arintzat hartzen den ez betetzeren bat egiten bada, honako zigor hauetako bat ezarri ahal izango da:

- Kontratu-jabea ohartaraztea, eta kontratuko betebeharrak guztiak zehazki bete ditzala exijitzea.
- 100,00 eta 1.000,00 euro arteko zehapen ekonomikoa (zenbatekoa zehaztuko da arau-haustearen garrantziaren arabera).

14.- KONTRATUA AMAITZEA

Administrazio kontratua amaituko da bete delako edo amaitutzat jo delako.

Kontratuaren jabearekin kontratua bete dela iritziko zaio kontratuaren jabeak kontratuaren xedea guztiz betetzen duenean, kontratuko baldintza guztiekin bat etorriz eta Administrazioaren onarpenarekin.

Kontratua amaitutzat joko da kontratua bera edo orriotako baldintzak betetzen ez badira, edo eta Kontratuen Legearen Testu Bateginaren 223. eta 308. artikuluetan adierazitako arrazoiengatik; halaber, kontratua amaitzeak Lege horretako 309. artikuluan aurreikusitako ondorioak izango ditu.

15.- ADMINISTRAZIOAREN ESKUBIDEAK

Udal Elkarteak, zerbitzua kontratatzen duen administrazioa izanik, egoki iritzitako jarraibide eta aginduak eman ahal izango ditu, zerbitzua era egokian burutzeko, betiere hitzartutako kontratuaren eginkizunak aldatu gabe.

Eta, oro har, Udal Elkarteak eskubidea izango du kontratua interpretatzeko, kontratuan sor daitezkeen zalantzak ebazteko, herri-onurako arrazoiengatik kontratua aldatzeko, kontratuari amaiera emateko eta

amaiera horren ondorioak zehazteko, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginean ezarritako muga, baldintza eta ondorioekin.

Udal Elkarteak zerbitzua ikuskatu eta zainduko du horretarako izendatutako teknikariaren edo teknikarien bitartez.

Kontratazio-organoez hartzen dituzten akordioak berehala betearaziko dira.

Akordio horien aurka Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/92 Legearen 107. artikulua aitutzen dituen errekursoak jarri ahal izango dira, bidezko bada.

BIGARREN ATALA - KONTRATATZEKO PROZEDURA

16.- IZAPIDEAK ETA ESLEITZEKO PROZEDURA

Kontratazio-espeditentea **modu arruntean** izapidetuko da, lehiaketa eta esleipena **prozedura irekiaren** bidez burutuko dira eta kontratua esleitu zaio ekonomikoki onuragarriena den eskaintzari.

17.- ESLEITZEKO IRIZPIDEAK

Kontratua esleitu da jarraian azaltzen diren balorazio-irizpideetan oinarrituko. Hona hemen irizpide horiek garrantzi handienekotik txikienera eta puntuazioaren arabera sailkatuta:

a) Diru-eskaintza: 55 puntu

Diru-eskaintzak baloratzeko, honako puntuazio-sistema honi jarraituko zaio:

Gehieneko puntuazioa (55) emango zaio eskaintza onenari. Gainerako eskaintzak puntuatzeko honako eragiketa hau egingo da: puntuazio onenari kenduko zaio beherapenaren ehunekoaren eta eskaintza merkeenaren arteko aldea.

Eskaintza baten beherapena aterako da honela: ehun eta diru-eskaintza bakoitzak lizitazio-prezioarekiko ematen duen ehunekoaren arteko aldea: $100 \times (1 - \text{proposamena} / \text{lizitazioa})$

Beherapen handiena duen eskaintzari ("A beherapena" esango diogu) gehieneko puntuazioa emango zaio, hau da, 55 puntu. Gainerako proposamenak (B) honako formularen arabera haztatuko dira: $55 - (A \text{ beherapena} - B \text{ beherapena})$; zero puntuazioa emango zaio eragiketa horren emaitza negatiboa bada.

b) Eskaintzaren kalitate teknikoa: 35 puntu

Lehiatzaileek memoria tekniko zehatza aurkeztu behar dute, eskakizun tekniko zehatzen orrietan eskatutako dokumentazioarekin bat etorritik. Memoria horrek jasoko ditu zerbitzua antolatze eta emateko moduari (metodologia eta lan egitaraua barne) eta kontratua burutuko duen lantaldeari buruzko argibide guztiak. Aurkeztutako proposamenaren kalitate teknikoa baloratu da, eta, horretarako, agindu teknikoetan ezarritako irizpide teknikoak hartuko dira kontuan.

3) Proposatutako hobekuntzak: 10 puntu

Balioetsiko dira lehiaketa honen objektuarekin zerikusia duten hobekuntzak, betiere eskaintzaren prezioari eragiten ez badie eta baldintzen orrietan eskatu gabekoak badira.

18.- KONTRATATZEKO GAITASUNA ETA KAUDIMENA

Jarduteko gaitasuna duen pertsona fisiko nahiz juridiko espainiar nahiz atzerritar orok du prozesu honetan parte hartzeko aukera, betiere kaudimen ekonomikoa, finantzaketa kaudimena eta kaudimen tekniko edo profesionala egiaztatzen badu.

Gainera, enpresariak kontratu honen xede den jarduera gauzatzeko beharrezkoa den enpresa- edo lanbide-gaikuntza eduki behar dute.

Pertsona juridiko bat kontratu baten esleipendun izan daiteke, baldin eta kontratu horren objektuko lanak pertsona juridiko horren jardueraren helburu, objektu eta arlokoak baldin badira, pertsona juridiko horren estatutu edo arau eratzaileren argitara.

Inola ere ezingo dute Udal Elkartearekin kontraturik egin Sektore Publikoko Kontratuaren Legearen Testu bateginaren 60. artikuluan aurreikusitako egoeraren batean dauden pertsonak.

19.- PROPOSAMENAK

Lizitazio honen espedienteak, baldintzak eta gainerako xehetasunak aztertu ahal izango dira Udal Elkarteak Idazkaritza-Kontuhartzailetzan, proposamenak aurkezteko epearen barruko lanegunetan (larunbatak izan ezik), 8:00etatik 14:00etara.

Halaber, lehiaketa iragarriko da Udal Elkartearen kontratatzailearen perfilean (www.urolakosta.org) eta bertan eskuratu ahal izango dira baldintzen orriak eta gainerako dokumentuak.

Proposamenak isilpekoak dira eta, beraz, Urola Kostako Udal Elkarteak beharrezko bitarteko guztiak jarriko ditu lizitazio publikoa egin bitartean isilpekoak izateko.

Proposamena aurkezteak esan nahi du lizitatuzaileak erabat eta salbuespenik gabe onartzen dituela orrietako, eskakizun teknikoaren orrietako eta gainerako kontratu-dokumentuetako baldintzak; gainera, lehiatzaileek erantzukizun-adierazpena egingo dute, aurkeztutako datu guztiak zehatzak eta egiazkoak direla adierazi eta baldintza-orri hauen xede den kontrataziorako eskatzen diren baldintza guztiak betetzen dituztela ziurtatzeko.

Lizitatuzaile bakoitzak proposamen bakarra aurkeztu ahal izango du. Gainera, ezingo du aldi baterako enpresa-elkarte gisa proposamenik aurkeztu banaka proposamena aurkeztu badu; halaber, lizitatuzaile batek ezingo du aldi baterako enpresa-elkarte batean baino gehiagotan aurkeztu. Arau horiek hausteak lizitatuzaile horrek sinatutako proposamen guztiak baztertuta gelditzea ekarriko du.

Lehiatzaileek beren eskaintza itxitako hiru gutun-azaletan aurkeztu behar dute, bakoitzean honako izenburu hau idatzita: *“Urola Kostako Udal Elkarteak osatzen duten udalerrietan etxean sortutako landare olioak biltzeko zerbitzua”*. Izenburuaren ondoan espediente zenbakia adieraziko da (2013IKIE0002).

Gutun-azal bakoitzean enpresaren izena edo proposamena egin duenaren izen-abizenak idatziko dira. Lizitatzailleak edo haren ordezkariak hiru gutun-azalak sinatu behar ditu.

Gainera, gutun-azal bakoitzean adieraziko da zein den gutun-azalaren edukia, honela:

- **“1. gutun-azala: Kontratatze gaitasuna eta kaudimena”**
- **“2. gutun-azala: Agiri teknikoak”**
- **“3. gutun-azala: Diru-eskaintza”**

Gutun-azalean honako dokumentu hauek sartu behar dira:

“1. gutun-azala: Kontratatze gaitasuna eta kaudimena”

- 1) Enpresariak edo, hala badagokio, haren ordezkariak, jarduteko gaitasuna duela egiaztatze dokumentuak:
 - Proposamena aurkezten duen pertsonaren Nortasun Agiri Nazionala, norberaren nahiz ahaldunaren izenean.
 - Lizitatzaillea pertsona juridikoa baldin bada, jarduteko gaitasuna egiaztatze aurkeztu behar ditu pertsona juridiko hori eratzeko eta aldatzeko eskriturak, Merkataritza Erregistroan behar bezala izena emanda. Identifikazio Fiskaleko Txartela ere aurkeztu behar du, IFZ agertzen duena.
 - Beste norbaiten izenean proposamena sinatu edo beste norbaiten ordezkari gisa agertzen den pertsonari behar besteko ahalmena emango dion dokumentua. Lizitatzaillea pertsona juridikoa bada, ahalordeak inskribatuta egon behar du Merkataritza Erregistroan. Ahalmena jardura jakin baterako bakarrik izanez gero, ez da beharrezkoa Merkataritza Erregistroan inskribatuta egotea, Merkataritza Erregistroko Erregelamenduaren 94.1 artikuluari jarraiki.
 - Europar Batasuneko kide diren estatuetakoen enpresek (espainiarrak ez direnak) edo Altzairuaren Europako Esparru Ekonomikoko hitzarmena sinatutako estatuetakoen enpresek jarduteko gaitasuna egiaztatu beharko dute Administrazio Publikoetako Kontratuari buruzko Erregelamendu Orokorren 9. artikuluan zehaztutakoaren arabera.
 - Horietatik kanpo geratzen diren nazioarteko beste estatuetakoen enpresek Sektore Publikoaren Kontratuari buruzko Legearen Testu Bateginaren 55. artikuluan zehazten denaren arabera egiaztatu beharko dute jarduteko gaitasuna.
- 2) Kaudimen ekonomikoa eta finantza-kaudimena ondorengo bidez egiaztatuko da:
 - Enpresariarekin lan egiten duen finantza-erakunde baten ziurtagiria. Ziurtagiri horrek enpresariak kontratuaren objektua Urola Kostako Udal Elkartearekin kontratatze gaitasuna kaudimen ekonomikoa baduela adieraziko du, eskakizun teknikoaren eta administrazio-baldintzen orrietan ezarritako eskakizunak betez. Bestela, lehiatzaileak arrisku profesionalari dagokion kalte-ordainaren aseguruaren ziurtagiria aurkez dezake.
- 3) Kaudimen teknikoa eta profesionala ondorengo bitartez egiaztatuko da:
 - Aurreko hiru urteetan egindako lan edo zerbitzuak, kontratuaren objektu diren lanekin lotura zuzena dutenak. Adierazi behar da kopurua, data eta onuradun publikoak eta pribatuak. Egindako lan edo zerbitzuak honela egiaztatuko dira: hartzailea sektore publikoaren erakunde bat denean eskumena duen organoak egindako ziurtagiri edo bisatuaren bidez; hartzailea subjektu pribatua denean, berriz, hartzaileak egindako ziurtagiriaren bidez edo, ziurtagiririk ezean, enpresariaren aitopene baten bidez.

- Hondakin ez arriskutsuak bildu, garraiatu eta kudeatzeko kudeatzaile baimenduaren egiaztagiria.
- 4) Berariazko erantzukizun-adierazpena (**I. ERANSKIN**Aren arabera egina), adierazten duena eskaintza izenpetzen duenak eta horrek ordezkatzeko duen erakundeak ez dutela debekurik Administrazioarekin kontraturik egiteko, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginaren 60. artikuluan adierazten diren debeku-egoeren arabera.
- 5) Zerga eta Gizarte Segurantzako betebeharrak beteta dituela adierazten duen berariazko erantzukizun-adierazpena. Esleipendunak betebeharrak horiek betetzen dituela egiaztatzea behar du kontratua esleitu aurretik, **10 egun balioduneko** epearen barruan, hain zuzen ere egiaztapen hori egiteko errekerimendua jaso eta hurrengo egunetik kontaktatzen hasita.

Ekonomia Jardueren gaineko Zergan alta emanda dagoela egiaztatzeke ekitaldi horretako alta-agiria edo azken ordainagiria aurkeztu behar da. Altak izan behar du kontratuaren objektuari dagokion epigrafekoa. Horrekin batera, erantzukizun-adierazpena aurkeztu behar da, zerga horretan baxerik ez duela eman adierazten duena.

- 6) Aldi baterako enpresen arteko elkarte bat bada proposamena egiten duena, elkarte osatzen duten guztiek egiaztatu beharko dute gaitasuna eta kaudimena. Gainera, enpresa horien guztien legezko ordezkariak izenpetutako dokumentu bat aurkeztu beharko da. Dokumentu horretan adieraziko dituzte honakoak: proposamena izenpetzen duten enpresaburuaren izenak eta egoera; enpresen konpromisoa, esleipendun suertatuz gero, aldi baterako enpresa elkarte formalki eratzeke; enpresa bakoitzak enpresa-elkartean duen partehartzea eta kontratua indarrean dagoen artean Administrazioaren aurrean guztien ordezkari izango den pertsonaren izendapena.
- 7) Atzerriko enpresek aitortzea aurkeztu behar dute, adierazten duena Espainiako maila guztietako epaitegi eta auzitegien jurisdikzioaren mende jarriko direla kontratuak zuzenean edo zeharka izan ditzakeen gorabehera guztiak ebazteko. Halaber, beharrezko balitz, lehiatzaileari legokiokeen atzerriko jurisdikzioari uko egiten diola adierazi beharko luke. Gainera, atzeritar izateagatik aplikatu behar zaizkien legearen eta araudiaren xedapenekin bat etorri beharko dute enpresa horiek, Europar Batasuneko kide diren edo ez aintzat hartuz.
- 8) Posta elektronikoaren helbidea (horrela nahi bada), jakinarazpenak egiteko.
- 9) Gutun-azal honetan sartutako dokumentu guztien zerrenda, zenbakiz antolatuta.

* **OHARRA:** Ekonomia eta Ogasun Ministerioko Kontratisten Erregistro Ofizialeko egiaztagiria, Euskadiko Autonomia Erkidegoko Kontratisten Erregistro Ofizialeko egiaztagiria edo Gipuzkoako Foru Aldundikoa aurkeztu bada, ez da beharrezkoa izango egiaztagiri horietan egiaztatutzat jotzen diren baldintzen egiaztagiriak aurkeztea, betiere egiaztagirian dokumentu zehatz horiek ageri badira eta egiaztagiri horiek baliozkoak direla eta indarrean daudela dioen zinpeko aitortzea aurkeztu bada.

Udal Elkarte honek izapidetutako beste kontratazio-espedita batera 1. atalean eskatzen den dokumentazioa aurkeztu dutenek (esleipen-dataren aurreko urtebeteko epearen barruan), ez dute berriz aurkeztu beharrik izango, beti ere, aldaketarik egon ez bada eta erantzukizuneko adierazpen bidez aldaketarik ez dela izan adierazten badute. Nolanahi ere den, aurreko lizitazioan eskatu ez zen dokumentazioa aurkeztea derrigorrezkoa izango da.

"2. kartazala: Agiri teknikoak"

Agiri teknikoen gutun-azal horretan honako datuak aurkeztuko dira gutxienez:

- ✓ Memoria teknikoa, eskakizun teknikoen orrietan eskatzen diren agirietan ezarritakoaren arabera: eskaintzen den zerbitzua burutzeko era eta moduaren azalpena eta justifikazioa, horretarako erabiliko diren giza baliabideak eta bitarteko materialak.
- ✓ Baldintzen orrietako 16. baldintzan zehaztutako esleitzeko irizpideak betetzen direla egiaztatzeko agiriak.

Proposamen teknikoa jasotzen duen memorian adierazi behar dira eskakizun teknikoen orrietan zehaztutako xehetasun guztiak.

Lehiatzaileek eskaintza hobeto azaldu eta balioesteko egoki iritzitako datu eta erreferentziak erantsi ahal izango dituzte.

Atal honetan sartu ahal izango dira, baita ere, eskakizun teknikoen orrietan ezarritakoak hobetzen dituzten bestelako orotariko hobekuntzak.

Gutun-azal honetan ez dira sartuko, inola ere, diru-eskaintza edo era automatikoan balioetsi daitezkeen irizpideei dagozkien bestelako datuak, izan ere, datu horiek 3. gutun-azalean sartu behar dira.

Datu horiek 2. gutun-azalean sartzen badira, lehiatzaile hori lehiaketatik baztertuta geratuko da eta ez da lehiatzaile horren 3. gutun-azala irekiko.

"3. gutun-azala: Diru-eskaintza"

Diru-eskaintza bat eta bakarra izango da; alabaina, agiri teknikoetan zehatz-mehatz azalduko diren kontzeptu hauek guztiak sartuta egongo dira, eskakizun teknikoen orriek ezartzen duten bezala:

- zerbitzu publikoa bideratu eta ustiatzeko behar diren bitarteko materialetan egin behar diren **inbertsioen** aurrekontua; lehiatzaileak, beharrezko jotzen dituen bitarteko materialen unitate bakoitzaren ezaugarriak adieraziko ditu (egilea, marka, modeloa, ezaugarri teknikoak eta abar), bere lan eskarmentuan eta ezagupenetan oinarrituta, kalitatearen eta prezioaren arteko oreka eta kontratuaren objektuarekiko egokitzapena kontuan hartuta, zerbitzu publikoa eraginkortasunez eta kalitaterik handienarekin ustiatzeko, eskakizun teknikoen orrietan jasotako alderdi bakoitzean eta guztietan. Lehiatzaileak eskaintza egingo du Urola Kostako Udal Elkartearen zerbitzu publikoari era eskusiboan atxikitako materialean oinarrituta.

Adieraziko dira materialen unitate bakoitzaren unitate prezioa, aurreikusitako unitate kopurua eta horiek eskuratzeko gastu osagarri guztiak.

- eta, zerbitzua **ustiatzeko** aurrekontua. Zerbitzu publikoa ustiatzeko beharrezko den aurrekontu adieraziko da, eskakizun teknikoen orrietan ezarritako baldintzak betez, antolamenduari, bitartekoei eta langileei buruz ezarritakoak eta aurrez aipatutako bitarteko materialak kontuan hartuta.

Aurrekontu hori honako kontzeptu hauetan banatuko da:

Exekuzio materialaren kostua, honako hauen baturak emana

Pertsonaleko kostuak, kontratuaren objektua burutzen zuzenean nahiz zeharka parte hartzen duten langileenak. Honakoak sartuko dira: kategoria bakoitzaren kostuak (oinarrizko lansariak, osagarriak, gizarte aseguruak eta abar), kontratatutako langileen ordezkapenak (oporregatik, bajengatik eta abar), ustekabeko bestelako bajak eta beste edozein arrazoiren ondorio diren lanuzteak.

Materialen kostuak, zerbitzua ustiatzeko beharrezko diren bitarteko materialak (instalazio nahiz ibilgailuak) zaindu eta mantentzeko kostuak, hala nola: erregaiak, elektrizitatea, langileen aldagelak, segurtasuna, lan prebentzioa eta lan osasuna, komunikazio sistemak eta abar.

Gastu orokorrak eta industria irabazia (%): kontzeptu horiek exekuzio materialaren kostuei aplikatuko zaizkie (BEZa sartu gabe).

Proposamena enpresa elkarte batek egiten baldin badu, elkarte osatzen duten enpresa guztiek sinatu beharko dute proposamena.

Dokumentazioa aurkeztuko da jarraibide hauen arabera:

1. Aipatutako dokumentuen jatorrizkoak edo orijinalak aurkeztu behar dira, edo indarrean dagoen araubidearen arabera benetakotzat jotzen diren kopiak.
2. Kontratuaren esleipen-erabakiaren aurka errekurtsioak aurkezteko epeak amaitu eta errekurtsorik aurkeztu ez bada, eskaintzarekin batera aurkeztutako dokumentuak aurkeztu dituen enpresaren eskura geratuko dira.
3. Nolanahi ere den, esleipen-erabakia irmo bilakatu eta hiru hilabeteko epea igaro ondoren, Administrazioak erabaki ahal izango du lehiatzaileek jaso ez dituzten dokumentuak deuseztatzea.
4. Eskaintza egiteko aurkezten diren dokumentuak Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetako batean idatzitako egongo dira (euskaraz edo gaztelaniaz). Beste hizkuntzaren batean aurkezten bada, dagokion itzulpen ofiziala erantsiko da.
5. Administrazio dokumentuak eta diru-eskaintza paperean aurkeztuko dira. Esleipen-irizpideetako baldintza teknikoei dagozkien dokumentuak paperean eta euskarri elektronikoen aurkeztuko dira.
6. Proposameneko edukiak egiazkoak ote diren egiaztatu ahal izango du Urola Kostako Udal Elkarteak, bai esleipenaren aurretik, bai eta ondoren ere. Enpresak adierazitako datuak eta egoerak faltsuak baldin badira, kontratua amaitutzat jo ahal izango da, kontratuaren jabeak kontratua ez betetzeagatik. Horrenbestez, kontratuaren jabeak jarritako behin betiko bermea galduko du edo, jarri ez badu, berme horren kopuru bereko kalte-ordaina ordainduko du.
7. Enpresa lehiatzaileak, egoki irizten badio, adierazi ahal izango du (IV. Eranskineko eredia erabiliz) proposamena osatzen duten dokumentu eta informazioetatik zeintzuk diren konfidentzialak, sekretu tekniko edo komertzialekin lotura dutelako, betiere lotura hori behar bezala arrazoituta. Konfidentzialtasunari buruzko dokumentu hori egin ahal izango da, enpresak hala nahi badu, gutun-

azal bakoitzari buruz. Dena dela, diru-eskaintzak ez du, inola ere, konfidentzialtasun izaerarik izango.

20.- ESKAINTZAK AURKEZTEA

Urola Kostako Udal Elkartearen bulegoetan aurkeztu behar dira proposamenak, 8:00etatik 14:00etara, honako helbide honetan: Urdaneta bidea 6, Zarautz. Halaber, 30/1992 Legeak, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoak, aurreikusten dituen bideak ere erabili ahal izango dira proposamenak aurkezteko. Eskaintzak aurkezteko epea **irailaren 3an bukatuko da, egun hori barne**.

Egun hori larunbata, igandea edo jaieguna baldin bada, epea hurrengo egun baliodunean amaituko da.

Lizitatzailerak bere proposamena posta bidez igortzen badu, igorpenaren data justifikatu beharko du postetxean, eta, egun berean, eskaintza igorri duela jakinarazi beharko dio kontratazio-organoari telefax edo telegrama bitartez. Bi baldintza horiek betetzen ez badira, eta dokumentazioa adierazitako epetik kanpo jasotzen badu organo kontratatzaileak, ez da dokumentazioa onartuko. Bestalde, adierazitako datatik egutegiko hamar (10) egun igaro badira, eta proposamena jaso ez bada, hori ez da inola ere onartuko.

Proposamena aurkeztu ondoren ezingo da atzera egin, administrazioaren kontratuen araubideak aurreikusitako kasuetan izan ezik.

21.- KONTRATAZIO-MAHAIA

Kontratazio Organoak Kontratazio Mahaiaren laguntza jasoko du. Kontratazio Mahaiaren egitekoa izango da eskaintzak balioestea. Honela osatuko da Kontratazio Mahaia:

- a) Lehendakaria: Urola Kostako Udal Elkartekoa.
- b) Mahaikideak:
 - Arantza Alberdi Ibarzabal, Ingurumen Saileko arduraduna.
 - Andoni Arrizabalaga Ibarzabal, hondakinen bilketa zerbitzuen kale ikuskatzailea
 - Xabier Urdangarin Lasa, Euskara Zerbitzuaren arduraduna.
 - Rakel Calvo Rojo, kalitateko eta lan-arriskuen prebentzioko teknikaria.
- c) Idazkaria: Udal Elkarteko behin-behineko idazkari-kontuhartzailea.

Kontratazio Mahaiak egoki eta beharrezko jotzen dituen txosten teknikoak egiteko eskatu ahal izango du, kontratua esleitu ahal izateko.

22.- AURKEZTUTAKO PROPOSAMENAK IREKITZEA

Eskaintzak aurkezteko epea amaitutakoan, Kontratazio Mahaiak 1. gutun-azalean aurkeztutako dokumentuak sailkatu eta kalifikatuko ditu, epea eta edukia kontuan hartuta. Horretarako, mahaiburuak gutun-azal horiek irekitzeko aginduko du. Kontratazio Mahaiak aurkeztutako dokumentuetan akats materialak atzematen baditu, interesdunei jakinarazi eta gehienez ere hiru laneguneko epea emango die akats horiek zuzendu edo Kontratazio Mahaiaren aurrean konpontzeko. Hori egingo da Administrazio Publikoen Kontratuen Erregelamendu Orokorren 81. artikuluan ezarritako eran.

3/2011 LEDren 82. artikuluan ezarritako ondorioetarako, Kontratazio Mahaiak enpresariei eskatu ahal izango die aurkeztutako ziurtagiri eta dokumentuen gaineko argibideak emateko edo osagarri diren beste dokumentu batzuk aurkezteko. Hori egiteko, Erregelamenduaren 22. artikulua ezartzen duenez, gehienez ere bost eguneko epea emango die. Epe horretan ezingo da aurkeztu proposamenak aurkezteko epean edo gorago adierazitako akatsak konpontzeko epean aurkeztu behar zen dokumenturik.

Kontratuen Legearen Testu Bateginaren 146.1 artikulua adierazitako dokumentuak sailkatu eta aurkeztutako agirietan leudekeen hutsune eta hutsegiteak konpondu ondoren, Kontratazio Mahaiak hautatzeko irizpideak betetzen dituzten enpresak zehaztuko ditu. Kontratazio Mahaiak berariaz adieraziko ditu lehiaketan parte hartzeko onartutakoak, baztertutakoak eta baztertzeko arrazoiak.

Parte hartzeko onartutako enpresen zerrenda, baztertutako enpresen zerrenda eta baztertzeko arrazoiak kontsultatu ahal izango dituzte lehiaketan parte hartu duten enpresek Kontratazio Mahaiaren aurrean. Horrez gain, Kontratazio Mahaiak erabaki ahal izango du informazio hori ezagutzera ematea, iragarkien taulan, bitarteko elektronikoen bidez (kontratzailearen profilean) edo prozeduran egoki den beste bideren bidez.

Kontratazio Mahaiak, 1. gutun-azalean aurkeztutako dokumentuak aztertu ondoren, ekitaldi publikoa egingo du lehiatzaileei jakinarazteko zein diren onartutako proposamenak. Ekitaldi hori zein egun eta orduetan eta non egingo den kontratatzailearen profilean emango da jakitera. Ekitaldi berean proposamen teknikoak jasotzen dituzten 2 zenbakiko gutun-azalak irekiko dira.

Jarraian, Kontratazio Mahaiak proposamen teknikoak kontratazioaren eskaria egin duten zerbitzu teknikoaren esku utzi ahal izango ditu, eskaintza teknikoak baldintzen orrietan ezarritako irizpideen arabera azter ditzaten. Halaber, Kontratazio Mahaiak egoki jotako bestelako txostenak ere eskatu ahal izango ditu. Aipatutako txosten eta azterlanak jaso ondoren, Kontratazio Mahaiak onartutako eskaintzak balioetsiko ditu, baldintzen orrietan ezarritako balorazio-irizpideen argitara.

Diru-eskaintzak dituzten 3 zenbakiko gutun-azalak irekiko dira ekitaldi publikoan. Ekitaldi hori noiz eta non egingo den jakitera emango da kontratatzailearen profilean (www.urolakosta.org) eta onartutako lehiatzaileei bidaltzen zaien komunikazioan. Ekitaldi horretan emango da balio-judizioetan oinarritutako irizpideetan proposamen bakoitzak jasotako balorazioaren berri.

23.- ESLEIPENA

Kontratazio Organoak, Kontratazio Mahaiaren proposamenaren haritik, aurkeztutako proposamenak sailkatu egingo ditu, puntu gehien eskuratu dituenetik gutxien eskuratu dituenara, baldintzen orrietan finkatutako esleipen-irizpideen argitara.

Kontratazio Organoak ekonomikoki eskaintzarik onuragarriena aurkeztu duen lehiatzaileari eskatuko dio honako eginbide hauek burutu izana egiaztatzeko, **hamar laneguneko** epearen barruan:

- Zerga arloko eta Gizarte Segurantzako betebeharrak beteta dituela egiaztatzeko ziurtagiriak aurkeztu (agiri horiek eskaintzarekin batera aurkeztu ez baditu).
- Erantzukizun zibileko polizaren eta ordainagiriaren kopia aurkeztu (gutxienez 600.000,00 euroko estaldurarekin), baldintzen orrietako hamaikagarren baldintzan zehazten denaren arabera.
- behin betiko bermea jarri.

- Esleipenduna enpresen elkarte bat bada, kontratua sinatu aurretik esleipendunak egiaztatu behar du aldi baterako enpresa-elkarte gisa legez eratu dela eta dagokion IFKa baduela.
- Kontratazio Organoak eskatutako bestelako agiriak aurkeztu.

Kontratazio Organoak kontratua esleituko du **bost laneguneko epearen** barruan, dokumentu eta egiaztagiri horiek jasotzen dituenetik hasita.

Esleipen-erabakia hartuko du Kontratazio Organoak, arrazoitutako ebazpenaren bidez. Ebazpen hori lehiatzaileei jakinarazi egingo zaie eta argitara emango da kontratazio organoaren kontratu-egilearen profilean (www.urolakosta.org).

24.- KONTRATUA BURUTZEA ETA FORMALIZATZEA

Kontratua gauzatuko da formalizatzen denean.

Lizitazioaren eta esleipenaren iragarkien gastuak Urola Kostako Udal Elkartearen kontura izango dira.

Esleipenduna enpresen elkarte bat bada, kontratua sinatu aurretik esleipendunak egiaztatu behar du aldi baterako enpresa-elkarte gisa legez eratu dela eta dagokion IFKa baduela.

Kontratua administrazio-agiri gisara formalizatuko da **15 laneguneko epearen** barruan, esleipenaren jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik kontatzen hasita. Agiri hori bere baitan aski izango da edozein erregistro publikotan sartzeko. Halere, esleipendunak kontratuaren eskritura publikoa egitea eskatu ahal izango du. Horrela bada, esleipendunak ordainduko ditu formalizazio-gastuak.

Esleipendunaren errua dela eta kontratua ez bada formalizatzen gorago adierazitako epearen barruan, Udal Elkarteak erabaki ahal izango du amaitutzat ematea eta behin betiko bermea inkautatzea.

Administrazioari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik egin ez bada formalizazioa, kalte-ordaina ordainduko dio kontratuaren jabeari, berandutzeak eragin ditzakeen kalte eta galerengatik.

HIRUGARREN KAPITULUA - IZAERA, ERREGIMEN JURIDIKOA ETA JURISDIKZIO ESKUDUNA

25.- IZAERA ETA ERREGIMEN JURIDIKOA

Baldintzen orri hauetan oinarrituta egiten den kontratuak administrazio-izaera izango du eta honako hauek arautuko dute:

- Administrazio-baldintza zehatzen orri hauek.
- Eskakizun teknikoen orriek.
- Urola Kostako Udal Elkarteak eta esleipendunak sinatzen duten kontratu-agiriak.
- 3/2011 Legegintzako Errege Dekretua, azaroaren 14koa, Sektore Publikoko Kontratuaren Legearen Testu Bategina onartzen duena.
- Maiatzaren 8ko 817/2009 Errege Dekretua (Sektore Publikoko Kontratuaren Legearen zati batzuk garatzen dituena), eta Administrazio Publikoaren Kontratuaren Legearen Erregelamendu Orokorra onartzen duen urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuko indargabetu gabeko arauak.

- 1955eko ekainaren 17ko Dekretua, toki korporazioen zerbitzuen erregelamendua onartzen duena, betiere 2/2000 LEDk eta 1098/2011 EDk xedatutakoen aurka ez dagoenetan.
- 34/2010 Legea, abuztuaren 5koa.
- Kontratazio administratiboa arautzen duten eta aplikagarri diren gainerako xedapen guztiak.
- Ordezko zuzenbide izango dira administrazio-zuzenbideko arau orokorrak, eta, horien ezean, zuzenbide pribatukoak.

Kontratu-jabeak kontratuari aplikagarri zaion araubidea ez ezagutzeak ez du araubide hori betetzeko erantzukizunetik salbuetsiko.

Administrazio-baldintzen orriotan adierazitakoa kontraesanean badago espedienteko gainerako dokumentazio teknikoarekin, orriotan ezarritakoak izango du lehentasuna.

26.- JURISDIKZIO ESKUDUNA

Kontratua interpretatzen, aldatzen, amaitzen edo amaitzearen ondorioak zehazten sor litezkeen gorabeherak erabakitzeko gorago aipatutako araubidea hartuko da kontuan eta isiltasunaren kasuan kontratazio-organoak erabakiko ditu. Erabaki horiek amaiera emango diote administrazio-bideari eta, horien aurka, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da, jurisdikzio hori arautzen duen Legearen arabera. Dena dela, interesdunek berraztertze errekurtsoa aurkezteko aukera dute, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legearen 116 eta 117 artikuluetan aurreikusitakoaren arabera.

EGINBIDEA:

Eginbide hau nik egin eta sinatzen dut, Urola Kostako Udal Elkarteko idazkari-kontuhartzaileak, adierazteko administrazio-baldintzen orri hauek onartu zituela Udal Elkarteko lehendakariak, 2013ko uztailaren 23ko ebazpenaren bidez.

Zarautz, 2013ko uztailaren 23a

I. ERANSKINA

ERANTZUKIZUN-ADIERAZPENA EGITEKO EREDUA

Nik,, adinez nagusi eta NAN..... zenbakiaren jabeak (helbidea tel. faxa), nire izenean edo sozietatearen izenean (IFZ zenbakia, helbidea, tel. faxa), adierazten dut bai nik eta bai ordezkatzan dudan sozietateak gaitasuna dugula administrazioarekin kontratatzeko, izan ere jarduteko gaitasuna dugu eta ez dugu Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginaren 60. artikuluan adierazitako debekurik. Halaber, berariaz adierazten dut ez dugula zigor irmorik lan segurtasun eta osasunaren arloan arau-hauste oso larririk egiteagatik, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginaren 60 c) artikulua ezarritakoaren argitara.

Era berean, aitortzen dut

- indarrean dauden xedapenek ezarritako zerga-betebeharrak eta gizarte-segurantzarekikoak egunean betetzen ditudala, Administrazio Publikoen Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorreko (1098/2001 ED, urriaren 12koa) 13. eta 14. artikuluek aurreikusten duten irismenarekin.
- gure sozietatea jarduera ekonomikoen gaineko zergan alta emanda dagoela kontratuaren xedari dagokion epigrafean, eta ez duela baja eman zerga horretan.

(Lekua, data eta sinadura)

II. ERANSKINA

DIRU-ESKAINZA EGITEKO EREDUA

Nik, jaunak/andreak, NAN zenbakiaren jabeak, helbidea dudalarik, nire izenean (edo sozietatearen izenean -helbidea, IFZ.....) (pertsona fisikoa edo juridikoa izatearen arabera), jarduteko gaitasun juridikoa dudalarik, honakoa

ADIERAZTEN DUT

1. Etxean erabilitako landare olioak biltzeko eta edukiontzien garbiketa eta mantentze-lanak egiteko zerbitzuaren kontratua arautzen duten administrazio-baldintza zehatzen orriak, eskakizun teknikoaren orriak eta bestelako agiriak ezagutzen ditut eta oso-osorik onartzen ditut.

2) Ordezkatzen dudana enpresak betetzen dituen kontratuaren objektu diren lanak egiteko indarrean dagoen araubidea jartzen dituen baldintza eta eskakizun guztiak eta kontratu honen berariazko baldintza guztiak.

3) Esleipendun gertatuz gero, lan guztiak eskaintzan zehaztu bezala eta baldintzen orrietan finkatzen diren betebeharrei eta baldintzei lotuta burutuko ditut, honako prezioan:

.....euro (letraz idatzita adierazi)

..... BEZa (%.....).

GUZTIRA:

Prezio horretan kontzeptu guztiak sartuta daude, hau da, edozein arlo fiskaleko zerga, gastu, tasa edo arbitrioak, eta baita BEZa eta kontratuaren jabearen industria-irabazia ere.

4) Era berean, konpromisoa hartzen dut lan eta zerga arloko araubidea betetzeko.

(Lekua, data eta sinadura)

*** Diru-eskaintzan bereiztuta adierazi behar da Balio Erantsiaren gaineko Zerga eta adierazi behar da kontratuaren objektuari dagokion % mota. Diru-eskaintza xehatuta ez baldin badago baztertu egingo da.**

III. ERANSKINA

LAN-ARRISKUEN PREBENTZIORI BURUZKO BALDINTZEN ORRIAK

Baldintza-orrion helburua da Urola Kostako Udal Elkartearen zentroetan edo Udal Elkartearen aginduz beste leku batean zerbitzuak kudeatzeko kontratu baten bidez diharduten kontratu jabeek lan arriskuen prebentzioaren arloan bete behar dituzten baldintzak finkatzea.

I. JAKINARAZTEKO BEHARRA.

a) Eskaintza egiteko unean

Kontratuaren jabeak bere eskaintzan honakoak adierazi behar ditu:

1. Bere enpresan indarrean dagoen prebentzioaren antolamenduaren deskribapena, enpresaren jardueran izaera orokorrarekin arriskuak prebenitzeko ezarritako kudeaketa-sistema.
2. Koordinazio-arduraduna, laneko arriskuen prebentzioaren arloan. Enpresa esleipendunak honako hauek adierazi beharko ditu bere eskaintzan:
 - i. Lan-arriskuen prebentzioaren arloan koordinatzaile gisa izendatutako pertsonaren datuak.
 - ii. Enpresaren agiria, pertsona hori izendatzen duena.
 - iii. Lan-arriskuen prebentzioaren arloko maila akademikoa edo esperientzia-urteak.

b) Kontratua burutzen ari dela

b.1) Jarduera hasi aurretik

Jarduerari ekin aurretik kontratuaren jabeak honakoak jakinarazi behar dizkio idatziz Urola Kostako Udal Elkarteari:

1. Kontratutako zerbitzuari dagokion lan arriskuen prebentziorako plangintza (arriskuen ebaluazioa, segurtasun neurriak, babesteko ekipo indibidualak, taldeko babes ekipoak, prestakuntza...).. A eranskina behar bezala bete eta eskatutako dokumentuak erantsita.
2. Zerbitzua burutzeko kontratuaren jabeak izendatutako arduraduna.

Izendatutako pertsonak izango du zuzenean (kontratutako enpresak barne) bere esanetara lanean ari diren pertsonen lan arriskuei eta hartu beharreko segurtasun neurriei buruzko informazioa eta prestakuntza emateko ardura; halaber, bere eginkizuna izango da lan arriskuak prebenitzeko arauak bete eta betearaztea.

b.2) Zerbitzuak ematen ari direla.

Lanak egiten diren artean, enpresako pertsona arduradunak honakoak jakinaraziko dizkio idatziz Urola Kostako Udal Elkarteak izendatutako pertsona arduradunari:

1. Edozein aldaketa garrantzitsu kontratuaren jardueran, langileen laneratzeak edo uzteak, zerbitzua ematean sortutako edozein gertakari. Idatzi horretan adieraziko da, baita ere, aldaketak zer behar sorrarazi dituen segurtasunaren eta osasunaren arloan.
2. Kontratu-jabearen langileek istripuren bat izaten badute, idatziz jakinaraziko zaio Urola Kostako Udal Elkarteari. Komunikazio idatzian adieraziko da istripua nola gertatu zen, zer lesio izan diren, zergatik gertatu den, eta zer neurri hartu diren horren inguruan.

II. KONTRATATUTAKO ENPRESAREN EGINBEHARRAK ZERBITZUA BURUTZEN ARI DELA.

1. Lanei ekin aurretik, kontratuaren jabeak izendatutako arduradunak lanak egiteko eremua bisitatuko du, horretarako Urola Kostako Udal Elkarteak izendatzen duen pertsonarekin batera. Bisita horretan lanen eremua mugatuko da, eta erabakiko da fisikoki eremua mugatzea beharrezkoa den ala ez (ingurua mugatu, itxi, eskudelak jarri eta abar).
2. Halaber, bisita horretan zehaztuko da zerbitzu burutzen den bitartean segurtasuneko zer nolako seinaleak erabiliko diren eta non jarriko diren. Horrekin batera, lanen eremura sartu eta eremuan ibili eta aritzeko derrigorrezkoak diren banan-banako babes ekipoak zehaztuko dira.
3. Kontratuaren jabeak eta Urola Kostako Udal Elkarteak zerbitzua burutzen den unean egin ezin diren jarduerak (jarduera bateraezinak) zehaztuko dituzte, eta idatziz adieraziko dute bateraezinak diren jarduerak burutzeko debekua ezarriko dute.
4. Kontratuaren jabeak zerbitzuari atxikitako langileek prestakuntza egokia izango dute, eta, ziurtagiri ofizialak izango ditu (beharrezko denean) behar bezala eguneratuta. Langile horiek Urola Kostako Udal Elkartearentzat burutzen ari diren lanari buruzko prestakuntza eta argibide zehatzak jasoko dituzte, bereziki segurtasunarekin eta osasunarekin zerikusia duten alderdi guztietan.
5. Laneko agintaritzak zehapen bat ezartzen badio Urola Kostako Udal Elkarteari, kontratu-jabearen langileek laneko segurtasunaren eta osasunaren arloko neurriak bete ez dituztelako, Urola Kostako Udal Elkarteak dagozkion legezko eginbideak hasi ahal izango ditu kontratu-jabearen aurka.
6. Kontratu-jabeak zerbitzua ematen ari dela erabiltzen dituen material eta ekipamendu guztiek, bai norbanakoen babeserakoek, bai babes kolektiborakoek ere, laneko arriskuen prebentzioaren arloan indarrean dagoen araudia bete behar dute, eta hori egiaztatzen duten ziurtagiriek Urola Kostako Udal Elkartearen eskura egon behar dute.
7. Urola Kostako Udal Elkartearen zentro batean edo Udal Elkartearen esanetara ari den langile orok egiten ari den lanarekin bat datorren janzkera izango du, betiere egoera onean, garbi eta txukun.
8. Urola Kostako Udal Elkartearen zentro batean edo Udal Elkartearen aginduetara lan egiten duten langile guztiak behar bezala identifikatuta egongo dira, bai eta zerbitzua ematean erabiltzen dituzten ekipamenduak ere.
9. Hilero, enpresa kontratu-jabeak txosten ofizialaren kopia bat igorriko dio Urola Kostako Udal Elkarteari, zerbitzua eskaintzen ari dela gertatutako istripuei buruzkoa. Txosten horretan adieraziko dira istripuak eta istripuak sorrarazi dituzten gertakari eta gorabehera guztiak.
10. Pertsonak edo instalazioek istripu larriren bat izaten badute, edo unean larritzat edo oso larritzat har daitekeen istripuren bat gertatzen bada, berehala jakinaraziko zaio Urola Kostako Udal Elkarteari.
11. Kontratuaren jabeak Urola Kostako Udal Elkarteari bidali behar dizkio Gizarte Segurantzako, lan mutuako eta lan istripuen aseguruako kuotak egunean ordainduta dituela egiaztatzeko agiriak.
12. Kontratu-jabeak ezingo ditu lanak azpikontratatu Urola Kostako Udal Elkartearen baimenik gabe. Horrela izanez gero, enpresa azpikontratatuak edo autonomoen erregimeneko langileek dokumentu honetako eskakizun berak bete beharko dituzte. Kontratu-jabea izango da eskakizunen eta ez betetzeen erantzule Urola Kostako Udal Elkartearen aurrean.
13. Urola Kostako Udal Elkarteak ikuskatu ahal izango ditu, baita ere, azpikontrata edo autonomoen erregimeneko pertsona horiek.

A ERANSKINA: ENPRESAREN JARDUEREN KOORDINAZIOA

Kontratutako enpresaren datuak			
Sozietatearen izena:			
IFK:		Jarduera:	
Kontratutako zerbitzua			
Kontratutako zerbitzuaren solaskidea			
Izen-abizenak			
Lanpostua			
Telefonoa		e-maila	
Lan segurtasunaren eta osasunaren arloko solaskidea			
Izen-abizenak			
Lanpostua			
Telefonoa		e-maila	
Prebentzio-antolaketako modalitatea			
<input type="checkbox"/> Kanpoko prebentzio-zerbitzua:			
<input type="checkbox"/> Izendatutako langilea:			
<input type="checkbox"/> Bertako prebentzio-zerbitzua			
<input type="checkbox"/> Prebentzio-zerbitzu mankomunatua			
<input type="checkbox"/> Enpresaburuak bere gain hartzea			
JARDUERAREN HASIERAN AURKEZTU BEHAR DIREN AGIRIAK			
1. Kontratutako/azpikontratutako zerbitzua emango duten langileen zerrenda (Langileen izenen zerrenda osatu).			
2. Kontratutako zerbitzua egingo duten azpikontrata eta autonomoen zerrenda (Bete azpikontraten edo autonomoen zerrenda)			
3. Gizarte Segurantzako ordainketak egunean ordainduta daudela adierazten duen egiaztagiria (ziurtagiri horretan sartuta agertuko dira zerbitzua eskaintzen parte hartuko duten langile guztiak) edo, bestela, hileko ordainketaren TC2 agiria eta autonomoen hileko ordainketen ordainagiriak. Hilabete leko balioa; beraz, iraupen luzeagoa duten kontratuetan eguneratutako ziurtagiria bidali beharko da.			
4. Ogasuneko ordainketak egunean ordainduta daudela adierazten duen egiaztagiria (urte leko balioa du).			
5. Erantzukizun zibileko polizaren fotokopia eta ordainagiria (urte leko balioa du).			
6. Ituna kanpoko prebentzio-zerbitzu batekin, edo bertako prebentzio-zerbitzuaren ziurtapena edo izendatutako langilea, indarraldia adierazita.			
7. Idatziz egiaztatzea zerbitzua emango duten langileen osasuna zaintzeko betebeharrak bete direla, egin behar duten lanak dakartzan arriskuak kontuan hartuz.			
8. Egin behar diren lanetako arriskuen ebaluazioa eta prebentzio-jardueren plangintza.			
9. Zerbitzuan erabiliko diren makina eta ekipoen zerrenda, fabrikazio urtea adierazita.			
10. Langileek lan-arriskuen prebentzioari buruzko prestakuntza, egin behar duten lanerako beharrezko dena, jaso dutela egiaztatzen duen dokumentua.			
11. Zerbitzuko jarduerak burutzeko behar diren babesteko ekipoak langileei eman zaizkiela adierazten duen egiaztagiria.			
12. Langileek Urola Kostako Udal Elkarteak emandako informazioa jaso dutela adierazten duen egiaztagiria (lanpostuaren arriskuen ebaluazioa eta hartu beharreko neurriak, segurtasun arauak eta larrialdiko neurriak).			
OHARRAK			
Azpikontratutako enpresako arduradunak kontratu-jabeari jakinarazi egin behar dizkio izendatutako langileen aldaketak, laneratzeak edo uzteak. Kontratutako/azpikontratutako enpresak ez baditu betetzen aipatutako eskakizunak, edo ez badu edozein aldaketa, gertakari edo istripu jakinarazten, kontratua desegin egin ahal izango da.			

IV. ERANSKINA
(aukerakoa)

ENPRESAK EMANDAKO INFORMAZIOA KONFIDENTZIALA DELA ZEHAZTEKO
DOKUMENTU-EREDUA

Nik, jaunak/andreak, NAN zenbakiaren jabeak,
helbidea dudalarik, nire izenean (edo
..... sozietatearen izenean -helbidea
....., IFZ.....) (pertsone fisikoa edo juridikoa izatearen arabera),
jarduteko gaitasun juridikoa dudalarik, honakoa

ADIERAZTEN DUT

..... (adierazi zenbakia) gutun-azalean aurkeztutako dokumentazioari dagokionez, kodea duen kontratazio-espedientera aurkeztutako eskaintzaren honako informazio eta alderdi hauek konfidentzialak direla adierazten dugu, sekretu tekniko eta komertzialei loturikoak direlako.

Konfidentzialtasun hori honako arrazoi hauetan oinarritzen da:

(Lekua, data eta sinadura)